



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
2019/10/02

Ipuin kontalari batek eta Mikel Urdangarinen kontzertuak Gerediagako foru-zelaia animauko dabe bariku honetan

“Sutondotik Gerediagako Plazara!” izenburuagaz, Gerediagako Batzarretxearen ondoko foru-zelaiak (Abadiño) kultur ikuskizuna biziko dau bariku honetan, urriaren 4an. Arratsaldeko 19:00etatik aurrera Eguzki ipuin kontalariak, gizaldietan gure herriko literaturaren transmisinorako modu nagusia izan dan ahozko tradizioari jarraituta, helduei zuzendutako Durangaldeko kontakizun tradizionalak kontauko ditu, Kirikiño edo Sarrionaindia egileenak, besteak beste.

20:00etan, Mikel Urdangarinen musikak Gerediagako foru gunea beteko dau. Urdangarinek “Margolaria” diskoko kantuak abestuko ditu, bere bandaren musikaltasun osoagaz entzungo diran kantu barri eta hunkigarriak. Mikel Urdangarin da “Margolaria” diskoko 10 gaietako 7ren musikari eta letren egilea. Disko barria bizitza xumeari, libreari eta ederrari egiten jakon kantua da, musika ibilbide zabala daukan eta ezaugarri nagusi moduan konposizino intimistak eta pertsonalak dituan Mikel Urdangarin kantautore zornotzarraren ahotik.

Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Gerediaga Elkartearen laguntza daukan “Sutondotik Gerediagako Plazara!” ekimena Ondarearen Jardunaldi Europarraren barruan sartzen da. Gerediagako San Salbadorreko Batzarretxea gure Lurraldeko Foru Batzarren esku dago.

Gerediagako San Salbador eta San Klementeren ermitea 2003. urtean eskuratu jaken Bizkaiko Batzar Nagusiei. Toki horretan Durangoko Merinaldeko Batzar Nagusiak egiten ziran antxina-antxinatik eta gaur egun Bizkaiko Batzar Nagusien Osoko Batzarrak egiteko erabilten da noizean behin.

“SUTONDOTIK GEREDIAGAKO PLAZARA!”

Euskeraz

Lekua: Gerediagako foru-zelaia (Abadiño)

Eguna: Barikua, urriaren 4a

Ordua: 19:00 (Ipuin kontalaria) eta 20:00 (Kontzertua)

Informazioa eta erreserbak: 673 005 981 / ejardunaldiak@gmail.com



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

02/10/2019

Cuentacuentos y un concierto de Mikel Urdangarin animarán la campa foral de Gerediaga este viernes

Bajo el nombre de “Sutondotik Gerediagako Plazara!”, la campa foral junto a la Casa de Juntas de Gerediaga (Abadiño) vivirá un espectáculo cultural mágico este viernes día 4 de octubre. A partir de las 19 horas, habrá cuentacuentos para personas adultas, a cargo del narrador Eguzki quien, siguiendo la tradición oral que durante siglos ha sido la principal forma de transmisión literaria en nuestro pueblo, contará relatos tradicionales de Durangaldea de autores como Kirikiño o Sarrionaindia.

A las 20 horas, la música de Mikel Urdangarin inundará el espacio foral de Gerediaga. Urdangarin interpretará los temas de “Margolaria”, nuevas y vibrantes canciones que resonarán con toda la musicalidad de su banda. Mikel Urdangarin es el autor de todas las músicas y de las letras de 7 de los 10 temas de “Margolaria”. Este nuevo disco es un canto a la vida sencilla, libre y hermosa de las palabras de Mikel Urdangarin, cantautor zornotzarra con un amplio recorrido musical y que destaca por sus composiciones intimistas y personales.

“Sutondotik Gerediagako Plazara!” se enmarca dentro de las Jornadas Europeas de Patrimonio, que organiza la Diputación Foral de Bizkaia y en las que colaboran las Juntas Generales de Bizkaia y Gerediaga Elkarte. La Casa de Juntas de San Salvador de Gerediaga depende de la Cámara Foral de nuestro Territorio.

Las Juntas Generales de Bizkaia recuperaron en el año 2003 la Ermita de San Salvador y San Clemente de Gerediaga, lugar en el que antiguamente se reunían las Juntas de la Merindad de Durango. En la actualidad, esta sede es utilizada para celebrar alguno de los plenos que la institución foral convoca regularmente.

“SUTONDOTIK GEREDIAGAKO PLAZARA!”

Espectáculo en euskera

Lugar: Campa Foral de Gerediaga (Abadiño)

Día: Viernes 4 de octubre

Hora: 19:00 (Cuentacuentos) y 20:00 (Concierto)

Información y reservas: 673 005 981 / ejardunaldiak@gmail.com